# eguraldia

Kepa San Martin

## Gaurko iragarpena




### Itsasoa

Iparretik eta ipar-mendebaldetik joko du haizeak lehen hogei milietan, hiruko indarrarekin. Hondoko itsasoa ipar-mendebaldekoa izanen da, eta metro erdiko eta metroko olatuak altxatuko ditu. Itsaskiarekin segitzen dugu, baina gutitzen, eta ikuspena handituz joango da.

**GAUR**

### Goizean hodeiak, arratsaldean oskarbi

Egoera antiziklonikoak presio altua (1.020 mb.) eta iparreko haizeak ekarriko dizkigu. Tenperaturak oso freskoak izango dira goiz-goizean, eta atseginak eguerdi aldean. Altueran dagoen hotz-geruzak hodeiak eta egongaiztasuna sortuko ditu. Egunaren lehenengo orduetan zeru hodeitsua eta euri zaparradak izanen ditugu, bereziki ipar-ekialdean –argiago mendebaldetik eta eguraldi oskarbia ere hegoaldean–. Arratsaldean, hodeiak eta ostarteak izango dira lurralde osoan..

**BIHAR**



Eguraldiak antzera segitzen du. Baina iganderako haizeak, ipar ukitukoa izan arren, ekialdeko ukitua hartuko du, eta hezetasuna jaitsi egingo da. Altueran egoera ez da nabarmen aldatuko, eta egongaiztasuna mantenduko da, nahiz eta arinagoa izan. Hala ere, ostarte gehiago izango ditugu arratsalderako.

**ETZI**



Astelehenerako atmosferaren altuerako hotz-geruza gure lurraldetik at geratuko da. Joera horrekin eta egoera antiziklonikoarekin egonkortasuna handitu egingo da. Baina Bizkaiko Golkotik fronte hotz bat hurbiltzen ari da gure kostaldera, eta baliteke astelehenean bertan ailegatzea.

## Eguzkia

Sortu _:_
Gorde _:_

## Ilargia

| ILBETE | ILBEHERA | ILBERRI | ILGORA |
|---|---|---|---|
| Irailak 2 | Irailak 10 | Irailak 17 | Irailak 24 |

## Itsasaldiak

| ITSASGORA | | ITSASBEHERA | |
|---|---|---|---|
| Ordua | 04:52 / 17:10 | Ordua | 10:41 / 23:04 |
| Metroak | 3,20 / 3,40 | Metroak | 1,30 / 1,05 |




### Isobara mapa

Azoreetako antizikloia oso altu dago latitudean, eta Bizkaiko Golkoaren inguruan ageri da. Antizikloiaren eragina gure lurralderantz hurbilduko da, eta, besteak beste, presio atmosferikoa goratu egingo da. Egun 1.020 mb.etan kokatzen da. Horrek egonkortasun aldi bat ekar dezake, baina atmosferaren altueran mantentzen da hotz-geruza, eta horrek egongaiztasun orokorra eragingo du. Penintsulako hegoaldetik presio baxuko gunea indartzen ari da, eta fronte okluitua edo presio baxuko gune termikoa sortu du. Baliteke horrek Euskal Herriko hegoaldeko lurraldeetara hodei multzoak ekartzea, betiere ilunabarrean.



### Europa gaur

Ipar eta ipar-mendebaldetik (Erresuma Batuko uharteetatik eta Eskandinaviatik) Atlantikoko fronteak ageri dira. Fronte horiek zeru hodeitsua eta euria ekarriko dituzte herrialde guztietara. Barnealdetik, kontinentearen erdialdean eta ekialdean fronte okluitu ugari sortzen ari dira; batzuk tokiko fronteak edo presio baxuko gune termikoak, baina gehienbat kostaldetik datozenak. Egongaiztasuna sortuko dute. Mediterraneoan presio altuak eta egoera egonkorra dira nagusi. Aldiz, iparraldean eta barnealdean oso tenperatura freskoak dituzte.

## Tenperaturak

| EUSKAL HERRIA | ▽ | △ |
|---|---|---|
| Baiona | 16 | 21 |
| Bilbo | 16 | 19 |
| Donibane-Garazi | 16 | 20 |
| Donostia | 16 | 19 |
| Gasteiz | 15 | 17 |
| Iruñea | 14 | 22 |
| Maule | 16 | 21 |

| EUROPA | ▽ | △ |
|---|---|---|
| Amsterdam | 13 | 20 |
| Atenas | 21 | 34 |
| Berlin | 13 | 22 |
| Bratislava | 12 | 25 |
| Brusela | 12 | 20 |
| Budapest | 11 | 20 |
| Dublin | 12 | 22 |
| Erroma | 21 | 26 |
| Frankfurt | 14 | 20 |
| Geneva | 14 | 20 |
| Helsinki | 11 | 18 |
| Kopenhage | 13 | 21 |
| Lisboa | 16 | 26 |
| Londres | 13 | 21 |
| Madril | 12 | 29 |
| Mosku | 5 | 12 |
| Oslo | 13 | 18 |
| Paris | 13 | 19 |
| Praga | 12 | 23 |
| Stockholm | 11 | 20 |
| Varsovia | 14 | 24 |
| Viena | 13 | 19 |
| Zurich | 13 | 20 |

| MUNDUA | ▽ | △ |
|---|---|---|
| Beirut | 14 | 27 |
| Buenos Aires | 13 | 16 |
| Bogota | 5 | 19 |
| Caracas | 18 | 30 |
| Chicago | 12 | 20 |
| Habana | 24 | 32 |
| Kairo | 25 | 35 |
| La Paz | 5 | 21 |
| Los Angeles | 18 | 24 |
| Manila | 25 | 28 |
| Miami | 26 | 32 |
| Mexiko | 14 | 23 |
| New Delhi | 15 | 24 |
| New York | 20 | 30 |
| Rabat | 21 | 30 |
| Rio de Janeiro | 21 | 30 |
| Tokio | 22 | 26 |
| Santo Domingo | 22 | 32 |
| Santiago | 5 | 15 |
| Sao Paulo | 18 | 27 |
| Washington | 23 | 29 |

# denbora-pasa

LUMA

## Hitz gezidunak




### AURREKO SOLUZIOAK

**Ezker-eskuin:** 1. Emakumezkoak. 2. Zorakeriak. A. 3. Izena. Arrats. 4. No! TNT. Itsua. 5. Elduain. Aia. 6. Zoaz! Nau. O. D. 7. Kar. Ikuskari. 8. Ok. Ikonoa. At.

**Goitik-behera:** 1. Ezinezko. 2. Mozoloak. 3. Are. Dar. 4. Kantuz. I. 5. Ukana. IK. 6. Me. Tinko. 7. Era. Naun. 8. Ziri. Uso. 9. Karta. Ka. 10. Okasioa. 11. A. Tua. Rr. 12. Kasa. Dit.

1. Agortua. 2. Argota. 3. Garoa. 4. Gora! 5. Gor. 6. Orga. 7. Geroa. 8. Gorena. 9. Oregano.



E3501